

I. ERANSKINA

“MANTENTZE LANETAKO ETA PRODUKZIORAKO ZERBITZUETAKO
TEKNIKARI ESPEZIALISTA”:

“MANTENTZE LANAK ETA PRODUKZIORAKO ZERBITZUAK”

LAN-POLTSA HANDITZEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Xedea eta oinarritzko osagaiak-

1.1.- Xedea.- Honako deialdi honen xedea da “Mantentze Lanetako eta Produkzioarako Zerbitzuetako Teknikari Espezialista”, **Mantentze Lanak eta Produkzioarako Zerbitzuak** espezialitatea, lan-poltsa zabaltzea, UPV/EHUren esparruan aldi baterako zerbitzuak eskaintzeko.

1.2.- Oinarritzko osagaiak.

1.2.1.- Hautatutako pertsonak bai plaza hutsak beteko dituzte, arauz hornitu artean, lanpostuen zerrenda osatzen duten langileak ordezkatzeko dituzte, bai aldi baterako premiak beteko dituzte. Aurreko kasuetan guztietan, lanpostuak edo unean uneko beharrak exijitutako betekizunak bete beharko dira.

1.2.2.- Lanaldia eta ordainsaria izango dira lanpostuak edo unean uneko beharrari dagozkionak.

1.2.3.- **Lanpostuak Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko** hiru Campusetako edozeinetan izango dira.

1.2.4.- **Hautatutako pertsonak** “Mantentze Lanetako eta Produkzioarako Zerbitzuetako Teknikari Espezialista”, **Mantentze Lanak eta Produkzioarako Zerbitzuak** espezialitatea, Lan-Poltsa osatuko dute, hain zuzen, lan-poltsan azken lekuan dagoen pertsonaren ondoren. Lan-poltsa erabiliko da lan-poltsak kudeatzeko araudiari jarraiki.

1.2.5.- Aplikagarria den araudi orokorraz gain, Lan-Poltsei buruzko Akordioaren eduki eta xedapenak aplikatuko dira, baita 2002ko uztailaren 1eko Zirkularra ere, AZPak kontratatzeko irizpideei eta prozedurei buruzkoa.

Bigarrena.- Hautagaiek bete beharreko baldintzak.-

2.1.- Hautapen prozesuan parte hartu ahal izateko ezinbestekoa izango da honako baldintza hauek betetzea:

- Hamasei urte izatea, eta nahitaezko erretirorako adina bete gabe izatea.
- Honako titulu hauetako bat gutxienez edukitzea, edo bera jasotzeko eskubideak ordainduta izatea: Batxilergoa, Batxilergo Bateratu Balioaniztuna, Lanbide Heziketako goi mailako teknikaria edo teknikari espezialista edo titulu baliokidea.
- Eskabide-orria behar bezala betetzea.
- Europar Batasuneko herrialde bateko nazionalitatea izatea edo, Europar Batasunak egindako eta estatu espainiarrak berretsitako nazioarteko itunen ondorioz langileen joan-etorri askea aplikatzen zaion estaturen batekoa. Europar Batasuneko herrialdeetako nazionalitatea dutenen ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute, non eta ez dauden legez bananduta, eta baita ezkontideon oinordekoek ere, baldin eta ezkontideak ez badaude legez bananduta eta oinordekoak 21 urtez beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izan arren, ezkontideen mende bizi badira. Era berean, aurreko paragrafoetan aipatu ez diren eta estatu espainiarrean bizi diren atzerriko pertsonak ere parte hartu ahal izango dute. Hautatuak izanez gero, kontratua sinatu aurretik egiaztatu beharko dute badaukatela administrazio baimena kasuan kasuko jarduera egiteko.
- Eginkizunak betetzeko gaitasun funtzionala izatea, betiere traba egin gabe azaroaren 29ko 2013/1 Legegintzako Errege Dekretuari, hau da, ezgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta inklusio sozialari buruzko Legearen testu bateratuari. Lan-poltsatik lanerako deia jasoz gero, interesdunak gaitasun fisikoa eta psikikoa egiaztatu beharko du ziurtagiri edo osasun azterketaren bidez. Baldintza hori betetzea ezinbestekoa izango da aldi baterako lan kontratua sinatzeko. Ezgaitasun fisiko edo psikikoa duten pertsonak gainerako hautagaien baldintza berberetan onartuko dira, baldin eta egiaztatzen badute behar besteko gaitasuna dutela kasuan kasuko itxaron zerrendako lanpostuko zereginak betetzeko.
- Diziplina espediente baten bidez baztertuta ez egotea administrazio publikoetako edo autonomia erkidegoetako organo konstituzional edo estatutarioetako zerbitzutik, eta ebazpen judizial baten bidez desgaitasuna absoluturik edo berezirik ez izatea funtzionarioen eskalan sartzeko, edo lan kontratudun langileen kasuan, baztertuta edo desgaituta izan zen lanpostuko zereginen antzekoak betetzeko. Beste estatu bateko nazionalitatea izanez gero, desgaiturik edo pareko egoeran ez egotea, edo baldintza berberetan enplegu publikorako sarbidea galarazten dion zigorrik edo parekorik jaso ez izana.
- Ezintasun edo bateraezintasunik ez izatea.

2.2.- Hautagaiak aurreko ataleko baldintzak bete beharko dituzte eskariak aurkezteko epea amaitzen denerako eta bere horretan mantendu hautaketa prozesuak iraun bitartean, salbuespena izango da, ordea, g) aurreikusitako bateraezintasun baldintza. Azken hori aldi baterako lan kontratua sinatzean bete beharko da.

Hirugarrena.- Eskariak aurkeztea.-

Eredu ofizial eta normalizatua aurkeztuko dira eskaerak, hurrengo moduetako batean:

- a) Modu elektronikoan. [Lan-eskaintzen Ataria](http://gestion-enplegu.ehu.es) (<http://gestion-enplegu.ehu.es>)-n sartu eta eskaera osatu ondoren berau igorrita.

Modu hori erabiliz gero, sistemak hartu izanaren adierazpena luzatuko du, erreferentzia zenbakia izango duena.

- b) Eredu ofizial eta normalizatu aurkeztuz, Interneteko helbide honetan dagoen eredia beteta: www.ehu.es (administrazio eta zerbitzuetako langileak) <http://go.ehu.eus/azp-kanpo-deialdiak>

3.1.- Aurreko bi kasuetan merezimenduen zerrenda eta horiek egiaztatzeko kopiak erregistratu beharko dira, eskaria bera ere bigarren aukera erabiltzekotan, 3.3. oinarriak adierazitako leku eta moduan. Lan-poltsaren 6.1. ("**merezimenduen balioespena**") eta 6.2. ("**euskara**") oinarrietan aipatutako merezimenduak baino ez dira aintzat hartuko.

3.2.- Eskaeran adierazi beharko da Bigarren Oinarriko betekizun guzti-guztiak betetzen direla, berauek aurkezteko epea burutzerako, oinarrietako bigarren ataleko salbuespena salbuetsita.

3.3.-Aurkezteko tokiak:

UPV/EHUREN zeinahi Erregistro Orokorretan aurkeztu ahal izango dira eskaerak.

UPV/EHUko Erregistro Orokorren zerrenda UPV/EHUREN 2012ko maiatzaren 16ko Erabakian dago jasota, Gobernu Kontseiluarena, UPV/EHUK sortu eta nortasun juridikorik ez duten egitura eta erakundeen funtzionamendurako oinarritzko arautegia onartzeko dena (2012ko ekainaren 18ko EHAA).

Baita Interneteko honako helbide honetan ere:
<http://go.ehu.eus/erregistro-bulegoak>

Bestalde, eskariak 39/2015 Legearen, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, 16. artikuluan adierazitako moduetan ere aurkeztu ahal izango dira.

Eskaria posta bulegoetan aurkezten duten interesdunek UPV/EHUko Gerenteari zuzenduko diote, eta bete beharko dute posta zerbitzuak arautzen dituen araudiaren 31. artikulua ezarritakoa (abenduarien 3ko 1829/199 Errege Dekretua).

3.4.- Eskariak eta tasak:

Merezimenduak ebaluatzeko prozesuan parte hartzeko eskaria aurkezteagatik ez da tasarik ordaindu behar, baina proba teoriko-praktikorako deia hartzen dutenek tasa ordaindu behar dute proba hori egiteko. Bere garaian zehaztuko da horretarako epea.

3.5.- Eskaerak eta merezimenduak aurkezteko epea hamar egun naturalekoa izango da, oinarria hauek argitaratu den egunetik kontatzen hasita.

3.6.- Hautapen prozesu hauetan parte hartzeak esan nahi du interesdunak onartu egiten duela eskarian jasotako datu pertsonalen tratamendua, behin-behineko eta behin betiko emaitzak web orrian eta iragarki taulan argitaratzeari dagokionez, eta ondoriozko lan-poltsaren kudeaketari dagokionez. Datuetara sartzeko, datuak zuzentzeko, ezeztatzeko edo datuei aurka egiteko, deialdia egin duen organora jo behar da.

Nolanahi ere, eskaria sinatzeak esan nahi du eskatzaileak informazioa jaso duela eta bere datuak aipatutako helburuetarako erabiltzeko baimena ematen duela.

Laugarrena.- Hautagaiak onartzea.-

4.1.- Eskariak aurkezteko epea amaitu eta gehienez ere hilabeteko epean, UPV/EHUko Gerentearen Erabaki bidez, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratuko da UPV/EHUren web orrian, administrazio eta zerbitzuetako langileen atalean: <http://go.ehu.eus/azp-kanpo-deialdiak>.

Baztertutako hautagaiak bost laneguneko epea izango dute (aurreko paragrafoan adierazitako lekuetan zerrendak argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita), baztertzea ekarri duen akatsa edo arrazoia konpondu ahal izateko.

Epean aurkeztutako erreklamazioak onartuko edo baztertuko dira Gerentearen Erabakiaren bidez, zeinak onartutako eta baztertutako hautagaien behin-betiko zerrenda onartuko du.

Interesdunak ez balu konponduko, aipatutako epean, bera baztertzea ekarri duen akatsa, eskaera bertan behera uzten duela ulertuko da, 39/2015 Legearen, urriaren 1koa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, 68.1. artikuluekin bat etorrira.

4.2.- Behin-behineko zerrendari erreklamazioak egiteko epea amaitutakoan, beste hamabost eguneko epean, onartutako hautagaien behin betiko zerrenda argitaratuko da. Erabaki horren aurkako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da, UPV/EHUko Gerentearen aurrean, hilabeteko epean, edo zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jurisdikzio horretako epaitegian, bi hilabeteko epean.

4.3.- Prozeduran zehar Epaimahaiak jakingo balu hautagaien batek ez duela betetzen deialdian eskatutako baldintzaren bat, hautagaia prozesutik baztertu egingo du, aldez aurretik entzunaldia eginda, eta egunean bertan jakinarazi beharko dio Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen Zerbitzuari.

4.4.- Hautagaien behin-behineko eta behin betiko zerrendetan datu hauek agertuko dira: izena, bi abizenak eta NAN zenbakia, edo atzerriko hautagaien kasuan, pareko agiriarena. Horren helburu bakarra da fase bakoitzean prozesuaren publikitate printzipioa betetzea eta interesdunei jakinarazpenak egitea. Edozelan ere, datuen erabilera hau bat dator datu pertsonalen babeserako legediarekin.

Bosgarrena.- Epaimahaia.-

5.1.- Hautaketa-epaimahaian trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkari bat izango da.

Hiru kidek osatuko dute Epaimahaia: epaimahaiburuak eta UPV/EHUko administrazioak izendatutako bi kidek; horietatik bat idazkaria izango da.

Euskara mailaren ezaguera neurtzeko IVAP-HAEEko ordezkari bat izendatuko da.

Epaimahaiaren osaketa Gerentearen Erabakiaren bidez jakinaraziko da.

Hautaketa-epaimahaiaren jarduna kide anitzeko organoen funtzionamenduaren arauak zuzenduko dute.

5.2.- Epaimahaiak aholkularien laguntza eskatu ahal izango du, probaren baterako edo guztietarako. Aholkulariak euren espezialitate teknikoetara mugatuko dira.

5.3.- Epaimahaikide guztiek izango dute hitza eta botoa. Epaimahaiaren erabakiak bertaratuen botoen gehiengoaz hartuko dira. Berdinketa izanez gero, epaimahaiburuaren botoak ebatziko du.

5.4.- Epaimahaia ordezkoek ere osatuko dute, titularrak izendatzearekin batera izendatu beharko direnak. Epaimahaiburuaren kasuan izan ezik, ordezkoek titularren kalitate bera izango dute.

5.5.- Epaimahaia ezingo da osatu, ezta aritu ere, epaimahaiburua eta idazkaria, edo hala badagokio, haien ordezkoak, eta gutxienez kideen erdiak (titularrak edo ordezkoak) bildu ezean.

5.6.- Epaimahaiburuaren eta bere ordezkoaren kargua hutsik balego, izendatutakoak ez baleude edo lege arrazoiren bategatik epaimahaian egon ezin balira, ordezkariak dituzte maila, antzintasun eta adin handieneko epaimahaikideek, hurrenkera horretan.

Idazkariaren kargua hutsik balego, izendatutakoa ez balego edo lege arrazoiren bategatik epaimahaian egon ezin balu, beste epaimahaikide batek, besteek gehiengoaz aukeratua, ordezkatu du.

5.7.- 40/2015 Legearen, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, 23. artikuluan aurreikusitako egoeraren batean dauden epaimahaikideek prozeduran esku hartzetik abstenituko dira, eta UPV/EHUko Gerenteari emango diote horren berri.

Era berean, egoera horietakoren bat gertatuz gero, interesdunek epaimahaikideak errefusatu ahal izango dituzte, lege beraren 24. artikuluari jarraiki.

5.8.- Bermatuko da oposizio aldia oposizio gileen %33ak gainditzea.

Horretarako, Epaimahaiak erabaki lezake oposizioan puntuazio-ataria jaitea proba bakoitza gainditzeko puntuazioa zein den erabakitze aldera. Betiere, eta prozesuaren funtzionamendu onerako, probetan exijitu daitekeen ezagupen maila eta hautagaiak erakutsitakoa kontuan izango da.

Erabakia hautagaien izen-abizenak ezagutu aurretik hartuko da. Akordioa publikoa egingo da.

5.9.- Epaimahaiak, jakinarazpenetarako eta gainerako gorabeheretarako, Bizkaiko Campusean izango du helbidea: Pertsonaleko Gerenteordetza, AZPkoen Zerbitzua, Langileak Hautatu eta Lanpostuak Betetzeko Atala (Sarriena auzoa, z/g, 48940, Leioa).

Seigarrena.- Hautapen prozesuaren garapena.-

Lehenengo Fasea: lehiaketa.

6.1.- Merezimenduen balioespena.

Fase honetan gehienez ere 10 puntu eskuratu ahal izango dira.

Kalifikazioa kalkulatu da merezimenduetako puntu guztiak batuta, hurrengo baremoaren arabera:

a) Instalazioa eta Mantenimendua; Zurgintza, Altzarigintza eta Kortxoak; Eraikuntza eta Obra Zibila; Elektrizitatea-Elektronika; Fabrikazio Mekanikoa; eta Energia eta Ura familiako Lanbide-heziketako tituluak:

- Goi Mailako Heziketa Zikloa, Teknikari Espezialista titulua edo Goi-mailako Teknikari titulua: 6 puntu.
- Lanbide ziurtagiriak:
 - 3. maila: 4 puntu.
 - 2. maila: 3 puntu.

1. maila: 2 puntu.

- Lanbide moduluak: puntu bana (1), gehienez ere 6 punturekin.

b) Espezialitatearekin zerikusirik ez duten bestelako titulazio ofizialak, betekizunaz bestelakoak izan behar dutenak:

- Goi-mailako Heziketa Zikloa, Teknikari Espezialista Titulua edo LOGSE Teknikari titulua: 2 puntu bakoitzeko.

Tituluak egiaztatuko dira tituluaren fotokopia edo titulua emateko eskubideak ordaindu izanaren agiria aurkeztuta. Tituluak eskariak aurkezteko epea amaitu aurretik lortutakoak izan beharko dira, bestela ez dira aintzat hartuko.

c) Euskal Autonomia Erkidegoan ofizialak ez diren hizkuntzak. Gehienez 2 puntu jasoko dute guztira hautagaiek, irizpide honen arabera:

Frantsesaren, Ingelesaren edo Alemanaren ezagutza:

- B1 edo altuagoa (Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoa): puntu eta erdi (1,50) hizkuntza bakoitzeko.
- A2 (Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoa): puntu bat (1) hizkuntzako.

Balorazioa egingo da kontuan hartuta Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Errektorearen 2012ko martxoaren 8ko Erabakiaren bidez hizkuntza ez-ofizialetarako ezarritako mailen arteko baliokidetzak erabiliz.

Hizkuntza ez-ofizialen ezagutza egiaztatzeko tituluen fotokopia aurkeztu beharko da. Tituluak eskariak aurkezteko epea amaitu aurretik lortutakoak izan beharko dira. Ez da probarik egingo hizkuntzen ezagutza maila egiaztatzeko.

6.2.- Euskara. Euskara merezimendutzat joko da, EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan aurreikusitakoarekin bat etorrira.

Hauxe da lortu daitekeen puntuazioa:

2. HE (B2) edo altuagoa: 3 puntu

1. HE (B1): 1,5 puntu

Hizkuntza-eskakizunak baliozkotzeari dagokionez, bi lege hauek aplikatuko dira: apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua, EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena (41. artikulua),

eta azaroaren 9ko 297/2010 Dekretua, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena.

Hizkuntza-eskakizunak edo baliokideak egiaztatzeko dokumentuak eskariarekin batera aurkeztu beharko dira.

Tituluak egiaztatzeko, tituluaren fotokopia edo titulua emateko eskubideak ordaindu izanaren agiria aurkeztu beharko da. Tituluak eskariak aurkezteko epea amaitu aurretik lortutakoak izan beharko dira, bestela ez dira aintzat hartuko.

6.3.- Berdinketa gertatuz gero, ez da kontuan izango 50 hautagaien muga. Hau da, 50 pertsona hautatzeko nota zein den jakinda, kopuru hori baino hautagai gehiago balego merezimenduak baloratu eta gero, horiek guztiek parte hartuko lukete oposizio fasean.

6.4.- Merezimendu lehiaketaren behin-behineko emaitzak argitaratu ondoren, bost egun balioduneko epea jarriko da erreklamazioak aurkezteko.

Epea amaituta eta erreklamazioak aurkeztuta, halakorik balego, puntuazioen behin betiko zerrenda argitaratuko da, eta oposizio fasera pasatuko diren 50 hautagaien hautaketa egingo da, 6.3.-ko kasuan izan ezik.

Bigarren Fasea

6.5 Oposizio fasea:

6.5.1 Proba praktikoa (nahitaezkoa eta baztertzaillea). Kasuan kasuko espezialitateko lan bati erantzungo zaio idatziz. Zeretik hogeira (20) puntuatuko da, eta gainditzeko hamar (10) puntu lortu beharko dira.

Proban parte hartzeko tasak ordaindu beharko dira horretarako zehaztuko den epean.

Tasa epean ez ordaintzeak suposatuko du hautaketa prozesutik kanpo geratzea. Ez da aparteko eperik izango tasa ordaintzeko.

Likidatu beharreko tasa hori ezarri da 1/2007 Legegintzako Dekretua, irailaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei Buruzko Legearen testu bategina onartzen duenari jarraiki. Tasa 14,806 **€koa da.**

Ezgaitasunak dituzten hautagaiek horren berri eman beharko dute tasen ordainagiria aurkezteko unean. Bide beretik, adierazi beharko dute nola egokitu beharko diren baliabideak eta ariketaren denbora beren premietara, beharrezkoa izanez gero. Egokitzapenak beharrezkoak direla egiaztatzeko,

eskatzaileak ezgaitasuna aitortzen dion egiaztagiri ofiziala eta behar dituen egokitzapenei buruzko txostena aurkeztu beharko ditu.

Ezgaitasuna duten pertsonatzat joko dira azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak halakotzat definitutakoak (ezgaitasuna duten pertsonen aukera berdintasunari, bazterkeriarik ezari eta irisgarritasun unibertsalari buruzko Legearen testu bategina, 4. artikulua); hau da, eskumena duen administrazioko organoak % 33ko ezgaitasuna edo handiagoa aitortu dienak.

Epaimahaiak ariketak egiteko denbora eta bitartekoak egokitu beharko ditu ezgaitasuna duten eta hala eskatu dutenentzat, gainerako hautagaien aukera berberak izan ditzaten, betiere probaren edukia desitxuratu barik, oztopatu barik aldi baterako langileak kontratatzeko deialdi batek izan behar duen tramitazio arina, eta lanerako eskatzen den gaitasun maila jaitsi barik.

6.6.- Lan-poltsan sartuko diren pertsonen hurrenkera erabakiko da puntuazio totalaren arabera. Hautagai bakoitzaren puntuazio totala kalkulatu da honako hauek batuz: ikasketa-tituluen eta hizkuntza ez ofizialen merezimenduen puntuazioa, euskararen puntuazioa, eta ariketa praktikoaren puntuazioa. Berdinketa gertatuz gero, irizpide hauen arabera erabakiko da hurrenkera:

1. Administrazioaren jardueraren kidego, eskala, maila eta kategorietan emakumeei lehentasuna emango zaie, baldin eta trebakuntzaren ikuspegitik emakumeen eta gizonen artean gaitasun bera badago, eta kidego, maila, eskala eta kategoria horietan emakumeak %40 baino gutxiago badira. Salbuespena izango da lanposturako beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak dituenen –nolanahi ere, ezaugarriok ez dute eragin behar sexuaren ziozko bereizkeriarik–; kasurako, laneratzeko eta lanbide-sustapenerako arazo bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea.
2. Ariketa praktikoan puntuazio handiena lortu duena izango da lehena.
3. Lehiaketa fasean puntuazio handiena lortu duena izango da lehena.
4. Lehiaketa fase barematzeko ataletako bakoitzean (6.1.a eta b) puntuazio handiena lortu duena izango da lehena, oinarrietako baremo hurrenkerari jarraiki.

Irizpide horiek aplikatuta ere berdinketa hautsi ezin bada, Estatuko Administrazioan Sarbiderako Erregelamendu Orokorrak zehaztutako zozketaren emaitza aintzat hartuko da.

6.7.- Hautagaiei eragiten dieten prozesuko ekintza guztiak web orrian argitaratuko dira 4. oinarriko lehen atalean esandako lekuan. Argitalpen horiek egingo dira interesdunei jakinarazpen pertsonala bidali beharrean, eta jakinarazpenen ondorio berberak izango dituzte, 39/2015 Legearen, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, 16. artikuluan arabera.

Zazpigarrena.- Epaimahaiaren proposamena.-

Hautapen prozesua amaitu ostean, Epaimahaiak hautagaien sailkapena egingo du puntuazio totalen arabera, eta bakoitzak atal bakoitzean lortu duena zehaztuta. Ondoren, zerrenda UPV/EHUko Gerentziara bideratuko du, prozesua behin betikoz ebazteko.

Epaimahaiaren proposamenen aurka gorako errekurtsioa jarri ahal izango da UPV/EHUko Gerentziaren aurrean hilabeteko epean, horiek argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Lan-poltsan honako hauek adieraziko dira:

- Kide guztien izen-abizenak.
- Kide bakoitzaren hurrenkera zenbakia.
- Deialdi honetan parte hartu duten kideek lortutako puntuazioa, baremoa aplikatu ondoren.
- Egiaztatutako hizkuntza-eskakizuna eta egiaztatutako ingelesaren, frantsesaren edo alemanaren ezagutza maila.

Zortzigarrena.- Gorabeherak.-

8.1.- Epaimahaiak, hautapen prozesua bide onetik joan dadin, eskumena izango du sor litezkeen zalantzak argitzeko eta honako oinarri hauetan aurreikusita ez dagoenaren gainean behar diren erabakiak hartzeko.

8.2.- Deialdiari, oinarriei, eta oinarrietatik nahiz Epaimahaiaren jardunetik sortutako egintza guztiak aurkaratu ahal izango dira 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, aurreikusitako kasuetan eta moduan.

8.3.- Deialdi honekin lotutako informazioa emango da UPV/EHUko AZPkoen Zerbitzuko Langileak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Atalean (Errektoregoaren eraikina, beheko solairua, Leioako Campusa, Bizkaia).

Bederatzigarrena.- Baldintzak betetzen direla egiaztatzea.-

9.1.- Lan-poltsatik lanerako deia jasoz gero, interesdunak aurkeztu beharko ditu Bigarren Oinarrian eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko dokumentuak, horretarako zehaztuko den epean.

9.2.- Epe horretan, eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, hautagaiak dokumentazioa aurkeztuko ez balu edo baldintza guztiak biltzen dituela egiaztatuko ez balu, hautatuen zerrendatik kanpo geratuko da automatikoki.